

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2020KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

Ogasun eta Ekonomia Sailak eskatuta egin da txosten hau, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumena erabiliz.

Txostenaren helburua da, batetik, egiaztatzea behar bezala betetzen dela 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako jarraibideetan agindutakoa (genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak), eta, bestetik, hobekuntzak proposatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzea da eskatutako txostenak aztertzen duen lege-aurreproiektuaren helburua.

Horrenbestez, xedapen arautzaile orokor batez ari gara, eta, lehenengo jarraibidearen 2.1. apartatuan ezarritakoarekin bat eginez, generoaren araberako inpaktua ebaluatu behar zaio. Horri begira, generoaren araberako eraginari buruzko txostena igorri du arauaren organo sustatzaileak, 1. eranskinean jasotzen diren baldintzetan eta lehenengo jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Egiaztatu dugu bete egin direla 4/2005 Legean aurreikusitako izapide formalak eta generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko jarraibideak. Horrenbestez, generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukiari eta hura egiteko prozesuari dagokienez, honako ohar eta proposamen hauek egin ditugu:

Aipatutako legearen aurreproiektuaren generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukia baloratu baino lehen, aurretik zenbait gogoeta egingo ditugu

prozesuari berari eta prozesua egiteko metodologiari buruz, garrantzitsuak iruditzen baitzaizkigu:

Lehenik eta behin, ontzat ematen dugu Ogasun eta Ekonomia Sailak izan duen lidergoa generoaren araberako eraginari buruzko txostena egiterakoan. Sail horrek, aurreko ekitaldietan egituratutako lan-prozedurarekin jarraituz, Jaurlaritzako gainerako sail guztiei eskatu die beren aurrekontu-programen artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera bideratutako helburu, ekintza edo jarduerak identifikatzeko, programa horien intentsitatea edozein izanda ere. Era berean, sailaren aparteko ahalegina txalotu nahi dugu: baliabide ekonomikoak bideratu ditu sailari berari laguntza teknikoa ematera eta genero-ikuspegiaren araberako aurrekontuen gaineko berariazko prestakuntzara (IVAP arduratu da azken horretaz).

Halaber, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak azaltzen duenarekin bat, berebiziko garrantzia izan du Jaurlaritzako gainerako sailen lankidetzak. Izan ere, sail bakoitzeko zuzendaritzek gogoeta egin dute beren aurrekontu-programei buruz, eta zenbait neurri ezarri dituzte beren helburuak eta ekintzak berdintasuna lortzeko helburu orokorrera egokitzeke. Alde horretatik, genero-eraginari buruzko txostenean jasotzen den bezala, Osakidetza eta EITB lan-prozedura horretan sartu izana nabarmendu behar dugu, aztertu beharreko aurrekontua pixkanaka handitze aldera. Nolanahi ere, barne-laneko prozesu horiek aurrera eramateko, oso garrantzitsua izan da berdintasun-unitateen laguntza, aholkularitza eta inplikazioa.

Gainera, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak adierazten duen bezala, Ogasun eta Ekonomia Sailak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, aurrekontu-prozedura administratiboan sartutako berrikuntza horien berri eman die sailetako, erakunde autonomoetako eta partzuergoetako kargu publikoetako langileei, sentsibilizazio-jardunaldi baten bidez.

Bestalde, 2018a eta 2019a bitartean, eta ekintza positiboak eta genero-ikuspegiarekin diseinatutako edo sail bakoitzeko aurrekontu-programetan diseinatzen ari diren ekintzak

identifikatzeko irizpideak bateratzea helburu nagusia izanik, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak adierazten du Ogasun eta Ekonomia Sailak, Emakunde eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, lantalde tekniko bat koordinatu duela Jaurlaritzako berdintasun-teknikariekin. Lan horren emaitza da "*Genero-ikuspegia plangintzan txertatzeko oinarrizko gaiak*" dokumentua, "*Aurrekontu-programen genero-ikuspegitik aztertzea*" inprimakiaren 4.4. apartatua betetzeko orientabide gisa balio duena.

Ilido horretan, eta aurrekontuen mikro-azterketa gainditu eta lehentasun politikoaren analisi ertain bat txertatzeko, genero-desberdintasunari eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari erantzuteko gobernu-sailek egiten dituzten jarduerak ikusarazten laguntzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak berritasun bat gehitu du aurrekontuko administrazio-prozedura arruntean: gainerako sailei, haien organo autonomoei, Haurreskolak Partzuergoari, Euskal Partzuergo Zientifiko-Teknologikoari, EITBri eta Osakidetza saileko txosten bat egiteko eskatzea. Txosten horretan, bakoitzak generoaren araberako ezberdintasunak murrizteko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko duen estrategiaren ikuspegi orokorra emango du, bai eta 2020ko aurrekontuetarako jarduera-lehentasunak ere. Era berean eskatzen da sailtako txosten horretan zehaztea zer jarduera egitea aurreikusten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren III. Esku-hartze ardatzaren barruan ("*Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak*").

Alderdi horiek guztiak kontuan hartuta, ontzat ematen dugu genero-ikuspegia gobernuaren aurrekontu-jardueran txertatzeko egindako lana, konpromiso eta lidergo politikoak ez ezik, aurretik aipatutako eragileekin lan teknikoa egiteko estrategiak ere sendotzen baitu. Horrek guztiak premia berriak identifikatzeko aukera eman du, baita aurrekontu orokorrak egiteko administrazio-prozeduran lan-tresna berriak abian jartzeko ere.

Era berean, garrantzitsua da nabarmentzea 2020rako aurrekontu orokorrak formulatzeko erabili diren jarraibideek lehentasuna ematen dietela gizartean, generoan, belaunaldien

artean eta arlo digitalean dauden desorekak murrizten laguntzen duten jardueri. Soldata-arrakalari heltzeko, indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko eta emakumeek eta gizonak bizitza pertsonalean, familiakoan eta lanekoan duten erantzunkidetasuna suspertzeko neurri guztiak dira jarraibideen ardatza, genero-arrakalen murrizketari dagokionez.

Ezin dugu ahaztu, edonola ere, etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-prozesu bat dela, eta, horri esker, eraginari buruzko lehen txostenetan berdintasun-politika espezifikoaren analisi soila egitetik generoarekin zerikusi duten aurrekontu-programa guztien balizko eragina aztertzea igaro garela (berdintasun-politika espezifikoak izan gabe ere). Horregatik guztiagatik, aurrerapauso kualitatibo hori azpimarratzekoa da, administrazio orokorreko gainerako politika publikoak generoari dagokionez ez direla neutroak agerian jartzeko, eta, horrenbestez, generoan eragina dutela eta eragin hori aztertu egin behar dela, eta, hala dagokionean, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko edo/eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikusi beharko direla.

Generoaren araberako eraginari buruzko txostenari dagokionez, komenigarria zatekeen denbora gehiago izatea txostenaren edukia sakonago aztertzeko. Nolanahi ere, honako ohar hauek egin dira:

- **EAEko diagnostiko sozioekonomikoa** jorratzen duen apartatuak Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) webguneak aipatzen ditu (*Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna* apartatua), baita Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen webgunea ere, zehazki, *Zifrak 2018 Emakumeak eta gizonak Euskadin* txostena. Orri horietan informazio egiazkoagoa eta eguneratuagoa eskura dezakegula egia den arren, txostenak adierazten duen bezala, etorkizuneko txostenetan diagnostiko sintetiko bat idaztea proposatzen dugu, biztanlerian dauden genero-arrakala nagusiak ikusarazteko, bereziki, ezartzen diren lehentasunezko ardatzetatik haratago joz, sailek eta erakunde autonomoek aurkeztutako estrategia testuinguruan kokatzeko aukera ematen dutenak.

Ildo horretan, esan behar da aurkeztutako generoaren araberako eraginari buruzko txostenak diagnostiko espezifiko bat eskaintzen duela Eusko Jaurlaritza sailen arteko lanean ari den bi ardatz estrategikoen egoerari buruz: soldata-arrakala EAEko lan-merkatuan eta Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.

- **Sailen gastuari eta haien aurrekontu-programei buruzko azterketari dagokionez**, EAEko Aurrekontu Orokorrari buruzko datu sailkatuak eman dira (atalka), aztertutako aurrekontuari buruzko datuak (sailka), bai eta Osakidetzako eta EITBko aurrekontuak ere. Horrek igoera nabarmena ekarri du 2019ko aurrekontuarekiko, eta, 2020ko aurrekontuan, % 56tik % 83,7ra igaro da.

Generoaren araberako eragin-txostenak egiten duen bezala, aipatzen da hurrengo ekitaldietarako komeni dela 00 atalaren eta 51.etik 99.era bitarteko atalen eta gainerako entitate, fundazio eta sozietate publikoen azterketa egitea.

- Aurrekontu-programak generoarekiko duen lotura dela-eta, txostenak zera azpimarratzen du: aurrekontu-programen aurrekontuaren % **99,23** jo dira generoarekin lotutako gaitzat. Datu hori izugarri esanguratsua da, eta agerian uzten du aurrekontuak ez direla generoaren aldetik neutroak programetako ehuneko oso handian, eta, horrenbestez, programa horiek generoaren ikuspegitik landu ahal direla. Portzentaje horretatik, % 96tan garrantzi handia eman zaio generoari: handia edo ertaina.
- Soldata-arrakalaren aurka borrokatzeko ezarritako 2020ko aurrekontuari dagokionez, Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorren % 0,83 da, eta Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontuaren % 1,5.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko ezarritako 2020ko aurrekontuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorraren % 0,2 da, eta Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen eta partzuergoen aurrekontu orokorraren % 0,35.

Genero-ikuspegiarekin planifikatutako jardueri eta sailek 2020ko aurrekontuen kontura garatuko dituzten eta diseinatzen ari diren genero-ikuspegidun jardueri dagokienez, esan behar da aztertutako aurrekontuaren% 19 direla, Osakidetza eta EITB alde batera utzita.

- Sail bakoitzari zuzendutako aurrekontu-programen azterketa dela eta, generoaren araberako eraginari buruzko txostenak sail bakoitzaren analisi zehatza egin du.
- Emakundek egindako aurreko egiaztapen-txostenetan bezala, **arau-esparruan** hau aipatzea proposatzen da: «*Genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpenari buruzko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren Erabakiz onartu zirenak, 2012ko abuztuaren 21ean*». Nahiz eta txosten horrek egokitzapen-lana egin duen, generoaren araberako eragina aztertzeko formulazioaren bidez, jarraibide horietan ezarritakoa betetzen du. Lege-aurreproiektuaren eta generoaren araberako eraginaren txostenaren testuari dagokionez, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin da, oro har, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearen 18.4 artikuluan agintzen denarekin bat etorritik.

Azkenik, aurreko ekitaldietan adierazi dugun bezala, eta horretarako dauden zailtasunez jabetzen garen arren, berriro adierazten dugu komenigarria dela erakunde honi nahitaezko txostena lehenago eskatzea, izapidea behar bezala egin ahal izateko denbora nahikoa izan dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 21a.